


## Marra itsasoan

Lurraren inguruan, 230 km-ko altueran, biraka dabilen Atlantis sateliteak ondoan azaltzen den argazkia atera zion Ozeano Barean ekuatorearen inguruko zonaldeari.



Marra horrek poloetako itsasoetatik datozen ur hotzen (elikagaietan oso aberats dira, hain zuzen) eta ur beroen arteko juntura adierazten du. Elkarketa honi esker bizia ozeano osora hedatzen da.

Bertan, bi zona bereizten dituen marra bat ikusten da. Marra horrek poloetako itsasoetatik datozen ur hotzen (elikagaietan oso aberats dira, hain zuzen) eta ur beroen arteko juntura adierazten du. Elkarketa honi esker bizia ozeano osora he-

datzen da. Batez ere diatomeak dira nagusi hedakuntza horretan eta horiek ematen diote itsasoari kolore berde iluna.

Gainazaleko behaketak azken urteotakoak dira, baina leku horietako hondoak aspaldidanik aztergai izan dira; bertan dauden diatomea-hondakinak aztertuta munduaren histo-

rian zehar gertatu diren ur-elkarketarik garrantzitsuenak zehatz baitaitezke.

## Espermatozoideek laguntza behar dute

Espermatozoideak igerilariak dira, baina Falopioren tronpetara heltzeko muskulu-uzkurduren bidezko bultzada behar dute, surfing-ean

gertatzen denaren antzera. Ikerlari kanadarraren arabera, aipatu bultzada eza izan daiteke zenbait emakumeengan esplikaziorik gabeko antzutasunaren arrazoa.

Uhinak, umetokiko miometrium izeneko muskuluaren uzkurdura leunen ondorio dira. Manitobako unibertsitateko Edward Lyons-ek dioenez, ernalketa-arazorik ez duten emakumeengan uhinak denboraren % 80an aritzen omen dira.

“Espermatozoideak ez dira izokinak eta, beraz, ezin dute bidean gora laguntzarik gabe igeri egin” dio Lyonsek. “Uhin laguntza behar dute obuluetara iristeko”.

Lyonsek eta Clifford Levi-k, ultrasoinuak erabili zituzten, ernalketa ezaren aurka tratamendua zuten 68 emakumeren uzkurdu-rak neurtzeko. Hartutako datuak, ernalketa-arazorik ez zuten emakume-kopuru berberetik hartutakoekin konparatu ziren. Minutuoro hiru uhin besterik sortzen ez direnez, ikerlariak grabatu egin zituzten ultrasoinuzko neurriak eta gero abiadura bizkorrean ikusi. Ernaldu ezineko emakumeengan uhinaren frekuentzia oso aldakorra zela edo uhinak ez zirela norabide egokian hedatzen ikusi zen.

Lyonsek dioenez “uzkurduren norabidean, frekuentzian edo inten-


tsitatean gertatzen diren anormaltasunak, esplikaziorik gabeko ernalketa ezaren arrazoirik garrantzitsuenetakoa izan daiteke”. Berak dioenez, uhinaren frekuentzia maximoa hileko zikloaren erdialdean izaten da, hau da, emakumea obulutzen ari denean eta, beraz, ernalkortasunik handiena duenean. Uzkurdu-rak, espermatozoideak garraiatzen dituzten postglandina izeneko substantzien eraginez estimulatu dira.

Espermatozoideentzat oso garrantzitsua da bizkor ibiltzea, baginaren goialdea oso azidoa baita beraz, espermatozoideetatik gutxi batzuek besterik ez dute bizitzea lortzen. Beraz, uhinaren eragina ia ezinbestekoa da espermatozoideak obuluetaraino heltzea nahi bada.

## Gela egin aurretiko musika

Ez dagoen leku batean musika edo soinuak entzutea laster baino lehen proposatuko zaie arkitetuei. Teknika berriaren helburua, eraiki beharreko gelaren planoetan oinarrituz, soinu-egiaztapena egitea da.

Frantzia Etxebizitzaren Zentru Zientifiko eta Teknikoak (CSTB) hamar urte darama aipatu alorra ikertzen.



Gela egin aurretiko musika. Teknika berriaren helburua, eraiki beharreko gelaren planoetan oinarrituz, soinu-egiaztapena egitea da.

Zenbait proiektu dituzte esku artean, baina ez dira horretan ari diren bakarrak; EEBBetan ere ari baitira.

Proiektu horien guztien prototipoak mikroordenadoreetan korrituko dutenez, edozein arkitekturentzat eskuragarri izango dira.

### 110. elementua

1994. go azaroaren 9an 16 h 39 min-etan, Alemaniako Darmstadt hirian Peter Armbruster eta

bere taldeak hamar urte ikertzen aritu ondoren elementu kimiko berri bat aurkitu zuten. Elementu kimiko horren pisu atomikoa 269koa da, hau da, hidrogeno-atomo batek pisatzen duena baino 269 aldiz handiagoa, eta duen bizi-iraupena segundoaren milarena baino txikiagoa da.

Darmstadtium dei diezaiokegun elementu hau, laborategi berean aurkitutako laugarren elementua da; aurrekoak nielsbohrium (107), hasium (108) eta meitnerium (109) izan ziren.

Darmstadtiuma nikelezko eta berunezko atomo bana elkartuta sortua da. Nikelezko atomoak Darmstadt-eko Univac-en azeleratu ziren eta saiakuntzak egun asko iraun zuen; nahiz eta berunezko atomoak nikelezko milaka atomoen


bidez bonbardatu, elkartzea oso gutxitan gertatzen baita.

### Kamen, 2.800 urteko gaztea

1990-go medikuntza-fakultateko anatomi fakultatean, Eric Voglio kirurgilariak momia baten barnean zilioskopio batekin higitzea lortu du lehen aldiz. Honi esker garezurreko, toraxeko eta bizkarrezu-

rreko barrua filmatzea lortu da.

Kamen, Amon leku sakratuko zaindariatako bat zen eta gure aroa baino VIII mende lehenago bizi izan zen.

Egindako azterketetatik garai hartako anatomia eta baltsamatzeko teknikiei buruzko datu ugari ateratzea espero da, baina dagoenezko honakoa aurrera daiteke: Kamen-en garuna sudurretatik atera zela. 

Eric Voglio kirurgilariak momia baten barnean zilioskopio batekin higitzea lortu du lehen aldiz.

